



BARREN  
TOKIKOM



# Bizitzaren dendaostea

Uxue Alberdi



**LAGUNAK**  
colchoneria textil hogar



- Zetazko Jacquard biskosa
- 300 gr Zeta
- 300 gr Lihoa
- Latex Naturala Comfort
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Cool Spring 900 suspentsioa
- 5 atsedun gune
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Latex Naturala Comfort
- 300 gr Mohair Artile
- 300gr zeta
- Zetazko Jacquard biskosa

Proba ezazu koltxoi natural batean lo egitea zer den eta  
bizi ezazu esperientzia lasaigarri bat. Zatoz probatzera gure dendara!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

## ETORKIZUNERANTZ HEZKUNTZA ERALDATZEN

HH 0-1eko matrikulazio aldia irekita ikasturte osoan zehar



elgoibar ikastola



Informazioa eta izen-ematea: [www.elgoibarkastola.eus](http://www.elgoibarkastola.eus)  
943 744441

Ordutegi zabala / Jai-zubietan eta oportetan irekita



Euskaraldiko produktuak salgai

Egin zure eskaera:

[www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)

[www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus)

643 499 169

943 741 626

[elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)



Jantzi. **EUSKARALDIA 2020**

Poltzak 5€

GEHIAGO,  
GEHIAGOREKIN,  
GEHIAGOTAN.



Kamisetak 10€

Amantalak 10€

Punttu  
punttuan  
EUSKARALDIA

euskaraz  
ZURE ETXEAN  
ZAUDE.

Lanpasak 15€





## ZURE TXANDA DA!

Zabandu da herritarrok izena emateko epea!

Lehen edizioan egin genuen moduan, euskararen alde egotetik euskaraz gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin egiteko prest gaudela erakusteko aukera daukagu.

Lehen edizioan **1.803** elgoibartarrek eman genuen izena

**1.245** ahobizi izan ginen

**558** belarriprest

Emakumezkoak **1.115**    Gizonezkoak **688**

Animatu eta eman izena!



[www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)



[elgoibar@euskaraldia.eus](mailto:elgoibar@euskaraldia.eus)



943 741 626



643 499 169



## ALEX SEGADE

Ikaslea



## Ondo goaz?

uste dut. Madrilen duten krisi larriari buruz baino ez dute informatzen eta ez dute ezer esaten gainontzeko probintzien egoerari buruz. Argi dut Madrilen egoera benetan kezagarria dela, baina, tira, kutsatuen kopurua eguneratzea ez da oso zaila.

Zergatik ari naiz hau esaten? Euskadin izan dugun kutsatuen berragertzea komunikabide nazionalak gure egoeraz ez informatzarekin lotuta dagoela pentsatzen dudalako. Gure lurraldea telebistan, irratan, egunkarian... ikusi ez dugunez, agian erlaxatzera gonbidatu gaitu horrek eta kutsatuen kopurua igoztez eragin du. Noski, hemen bertako

komunikabide garrantzitsuenak bai eguneratzen duela informazioa, baina normala denez, ez dute guztiak jarraitzen. Horregatik hemen dugun birusaren egoeraren pertzepzioa guztiz erreala ez izatea izan daiteke komunikabideek benetako garrantzia ez dutelako adierazten.

Osasun zentroak eta aztarnariak lan bikaina ari dira egiten eta birusa, momentuz, menderatuta dago. Posible da horrek komunikabide nazionalak Euskadiko egoera gutxiestera eramanez izatea, baina kontuz ibili behar dugu. Birusa oraindik gure artean dago eta hilabete asko igoroko dira desagertzera arte. Euskadin egoera larria ez bada ere, bai da apur bat kezagarria.

Euskadi, zorionez, kutsatuen kopuruan ez da izan probintziarik kalte-tuena dugun krisi honetan. Hala ere, azken asteetan kopurua dexente igo da eta egoera kezagarria izatera pasatu da. Arrazoiak ugari izan daitezke, baina komunikabide nazionalak hemengo egoeraz ez informatzeak pisu handia duela

*“Osasun zentroak eta aztarnariak lan bikaina ari dira egiten eta birusa, momentuz, menderatuta dago”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR  
URDIA  
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:

MENDIARRO  
1981

Gipuzkoako Foru Aldundia



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

#### ► MORKAIKORA!

Igor Gonzalez Solaren heriotzak begi aurrean jarri digu euskal preso politikoei jasaten duten salbuespenezko politiken tamaina. Legedi espainiarrean jasoak dauden eskubideak ukatu egiten zaizkie euskal preso politikoei. Etxetik urrunduak, gaixo larriekin espetxean, lehen gradoan...

Euskal gizarteak argi adierazi du egoera honekin bukatu beharra dagoela. Sindikatuak, alderdi politiko, maila guztietako instituzio, ehundaka mobilizazio eta manifestazio horren adierazle dira.

*Izan Bidea* egitasmoaren barruan, urriaren 3an Euskal Herri guztian 650 mendi tontorrera heldu nahi dugu gure eskabideekin. Elgoibarren Morkaikora nahi dugu igo. 9:30ean Kalegoen plazan eginga dugu hitzordua herritik oinez joan nahi dugunok. 10:45ean elkartuko gara herritik abiatu eta San Migel-Aiastiatik abiatuko direnekin, eta talde txikitik, eta seguridade neurriak mantenduz. 11:30ak aldera tontorrera helduko gara, seguridade neurriak mantenduz.

Egun honetan zurekin kontatu nahi

dugu. Sebas Etxaniz kaleratzea lortu dugu. Josu Larizen egoera eta beste iheslari eta preso politikoen egoera aldatzea lortu behar dugu. Lortuko dugu! **Julene Alberdi, Abel Arriaga, Lurdes Arrieta, Aitzol Arriola, Javi Basalo, Mainer Etxaniz, Ane Etxeberria, Modesto Cid, Amets Izagirre, Amaia Larrañaga, Jose Ignacio Laskurain, Ainhoa Lendinez, Maddi Mendibil, Josu Merino, Arnaldo Otegi, Gerardo Otero, Joana Rodriguez, Argiñe Rubio, Julen Salaberria, Juan Villarchao, eta beste 25 herritar.**



## IKASGO

ACADEMY

### Aurrematrikula epea zabalik 2020-2021

#### INGELESEKO AKADEMIA

- Ingeles errefortzuak
- Cambridge azterketak
- Talde txikiak

**Plazak libre!  
Gorde zure lekua!**

Basarte 13, behea - Elgoibar - [akademielgoibar@gmail.com](mailto:akademielgoibar@gmail.com)



RPS 233/13

**Tel.: 943 366 377**

**San Bartolome, 22**  
**20870 Elgoibar**

### NATUR HOUSE

**Ainara Iriando Ansola**

GIZA ELUKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA



Toribio Etxebarria, 22  
Elbar

**677 551 850**

### fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 13  
943 740 191 / 667 961 628  
[www.fisio-mas.com](http://www.fisio-mas.com)

RPS 677/12

RPS 183/12

## Uzuri

optika audio

Elgoibar  
Tel.: 943 740 359

Deba  
Tel.: 943 192 192



**Fernando Urizar Barandiaran**

R.P.S.: 32/17

Medikuntzan doktorea  
Psikiatrian espezialista  
Psikoterapia psikoanalitiko  
Psikosomatika

Ego-Gain kalea, 18-1A (Elbar)  
Ballein kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)  
[furizarf@yahoo.com](mailto:furizarf@yahoo.com)

**615 715 404**

## leku edero

hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Erparantzeta, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

Tel.: 943 530 053



RPS 65/07

**San Bartolome, 10**

Tel.: 943 743 734

RPS 271/12



**Jausoro plaza, 6 behea**  
**Elgoibar**

943 531 953  
669 565 745



## Zirardamendi-Aiastia fronte-lerroan hildako gudariak gogoratu dituzte



Elgoibarko Zirardamendi-Aiastia fronte-lerroa 1936ko irailean eta urrian hildako gudariak gogoratu zituzten domekan instituzio, elkarte, kultur erakunde eta alderdi politikoetako zenbait ordezkari. Aiastiako Murkaikupe frontoiaren atzean dagoen Gernikako arbolaren kimuari bisita egin eta gero, Zirardamendirantz jo zuten ekitaldian parte hartu zuten lagunek. Bidean, lau gudari desobiratutako tokian lorak laga eta Zirardamendiko gurutzetxoan beste lore sorta bat laga zuten. 36ko irailaren 25ean Arana Goiri batailoiko hamalau euskal gudari hil zituzten Zirardamendiko frontean: Jose Txintxurreta, Paulino Beraza, Juan Zabala, Blas Larrazeleta, Ambrosio Etxebarria, Felipe Elorriaga, Sabin Atutxa, Emeterio Llavori, Eusebio Gaubeka, Juan Agirre, Imanol Etxebarria, Marcelino Gandarias, Miguel Palacio eta Felix Arbulu. Elgoibarko memoria historikoa berreskuratzeko herritarrek sortutako Elgoibar 1936 taldeak, Ahaztuen Oroimena Markinaldeko Frentea 1936 taldeak eta Aranzadik elkarlanean deshobiratu zituzten 2012. urtean.

### 35.633 erabiltzaile ibili dira aurten Mintxetako igerilekuetan

Joan zen domekan itxi zituzten Mintxetako aire libreko igerilekuak, eta gutzira ekainaren 15ean ireki zirenetik 35.633 erabiltzaile pasatu dira igerilekuetatik, (iaz, 43.000). Arduradunek esan dutenez, uztaila izan da hilabeterik jendetsuena, 15.931 erabiltzaileekin. Udalak denboraldiaren balorazio "oso positiboa" egin du, ezarri duten osasun eta prebentzio planak "oso emaitza onak" eman dituelako. Inzidentziarik ez dela egon zehaztu dute, eta erabiltzaile kopurua ere oso altua izan dela nabarmendu, "aurreko urteetako antzerakoa".

### Elgoibarko Ludotekan izena emateko epea zabalik

Elgoibarko Ludotekan 2020-2021 ikasturterako izenematea zabalduko dute astelehenean, eta interesatuek urriaren 1era arte izango dute izena emateko aukera. Udaleko [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webgunean aurkituko dituzue izena emateko lotura eta informazioa.

### Urriaren 1etik aurrera jarriko dute martxan TAO sistema

Ekainetik etenda egon ostean, TAO zerbitzua berriro martxan jarriko du Udalak urriaren 1etik aurrera, ohiko ordutegiarekin: Asteleheneetik larunbatera 9:00etatik 13:00etara funtzionatuko du, eta asteleheneetik ostiralera, 16:00etatik 20:00etara. Orain arte bezala, doakoa izango da TAO sistema, baina gidariak gehienez ordu eta erdiz aparkatu ahal izango dute gune horietan. Guasa eta Sigmako aparkalekuetan, berriz, gehienez lau orduz aparkatu ahal izango da. Kasu guztietan, beharrezkoa izango da parkimetroa erabiltzea autoari tiketa jartzeko.

### Irailaren 28ra arte eman daiteke izena robotika tailerretan

Elgoibarko Udalak Robotika Dibertigarria ekimenaren seigarren edizioa antolatu du Doplay enpresarekin elkarlanean. Hala, 7 eta 10 urte arteko ikasleek beraien robotak, bideo-jokoak edo asmakizun teknologikoak sortzeko, diseinatzeko, eraikitzeko eta programatzeko aukera izango dute. Tailerrak ostiraletan egingo dira (17:00-18:30) Makina Erremintaren Institutuaren (IMH) instalazioetan. Prezioari dagokionez, elgoibartarrek 36€ ordaindu beharko dituzte hileko (Udalak Elgoibarko haurrentzat diruz lagundutakoa) eta Elgoibarkoak ez direnek, aldiz, 66€ hileko. Ikastaroa urriaren 9an hasi, eta 2021eko maiatzaren 28an amaituko da. Tailerrak ostiraletan egingo dituzte (17:00-18:30) IMHn. Prezioari dagokionez, elgoibartarrek 36€ ordaindu beharko dituzte hileko eta Elgoibarkoak ez direnek, aldiz, 66€ hileko.

### Mendaroko EHBilduk 2021eko zerga fiskaletarako proposamenak egin ditu

Mendaroko EH Bilduk bi proposamen aurkeztuko ditu 2021eko zerga fiskaletarako: batetik, familia ugariekin, kontribuzioa eta ibilgailuaren zergak ordaintzerakoan errentaren arabera hobariak ematea, hau da, ohiko etxebizitza eta ibilgailua ordaintzerakoan seme-alaben kopurua eta errentaren arabera gutxiago ordaintzea. Bestetik, etxebizitza hutsei irteera ematea eta alokairua sustatzea proposatu dute.



## Merkataritza eta ostalaritza sustatzeko beste bono kanpaina bat hasiko du Elgoibarko Udalak urriaren 7an

Elgoibarko Udalak *Elgoibar Bizi-bizixa* (merkataritza eta zerbitzuei zuzenduta) eta *On egin* (ostalaritzari zuzenduta) bonoen beste kanpaina bat jarriko du martxan urriaren 7tik aurrera. Merkataritza bonoen hirugarren kanpaina eta ostalaritza bonoen bigarren kanpaina da honakoa. Merkataritza eta zerbitzuetarako 3.500 bono ipiniko dituzte salgai eta ostalaritzarako, berriz, beste 3.250 bono. Udalak 200.000 euro bideratu ditu 2020an bono-kanpaina hauetara: maiatzean egindako lehenengo kanpaina gauzatzeko 60.000 euro inbertitu zituen, ekainean egindako bigarreneko, 57.000 euro, eta urriaren 7an hasiko den hirugarren honetarako, beste 83.000 euro. Elgoibar Bizi-Bizixa erosketak bonoak 2020ko azaroaren 15era arte trukatu ahal izango dira eta On Egin-ekoak abenduaren 1era arte.

*Bizi-bizixa* bonoak 50 eurokoak izango dira; Udalak 20 euro jarriko ditu, eta erosleak 30 euro. Pertsona bakoitzak bi bono erosi ahal izango ditu. *On eginen* kasuan, aldiz, bonoak 8 eurokoak izango dira; Udalak 4 euro jarriko ditu, eta erosleak beste 4 euro. Pertsona bakoitzak hamar bono erosi ahal izango ditu. Bonuak erosi nahi dituztenek bi eratarik egin ahal izango dute: Batetik, erosketak telematikoa jarri dute martxan. Bonoak era telematikoan erosi ahal izango dira 17:00etatik aurrera, urriaren 7tik 15era, biak barne, udaleko web orrian. Bestetik, aurrez aurreko salmenta ere egingo dute. Pertsona bakoitzak bost NAN edo AIZ ekarri ahal izango ditu (agiriak jatorrizkoak izan behar dira, edo fotokopiak edo aurretik eta atzetik agiriei egindako argazkiak). Aurrez aurreko erosketak Santa Ana kaleko 2an dagoen HAZen



bulegoan egingo da, urriaren 7tik 13ra, biak barne. Jendearen etorrera aurreziatzeko hitzorduaren bidez kontrolatuko da. Horretarako erostera joango den pertsonaren izen-abizenak eta NANA bidaliko dira whatsapp bidez. Hitzorduak urriaren 5ean eta 6an eskatuko dira, 8:00etatik 10:00etara, Udalaren webgunean eta sare sozialetan iragarriko den telefono zenbakira deituta. Urriaren 5ean, urriaren 7 eta 8rako hitzorduak emango dira; eta urriaren 6an, berriz, urriaren 9 eta 13rako hitzorduak.

Merkataritzako, zerbitzuetako jarduerak Elgoibar Bizi-Bizixa bonoen hirugarren edizioan edota taberna edo jatetxeak *On Egin* bonoen bigarren edizioan parte hartu ahal izateko irailaren 29ra arte izango dute izena emateko epea. Aurreko edizioan parte hartu dutenak automatikoki sartuko dira edizio honetan, beraz, parte hartu nahi ez dutenek aurretik jakinarazi behar dute [arreta@elgoibar.eus](mailto:arreta@elgoibar.eus) helbidera idatziz edota 943 741 050 (Mirian edo Iratxe) telefonora deituz.

## Zabalik dago berriro Lekuederretik Kalegoen plazarako pasabidea

Lekueder eta parroquia arteko galtzada hobetzeko lanak bukatzeko azken ukituak falta dira, eta dagoeneko ireki dute obregatik itxita zegoen Lekueder eta Kalegoen plaza arteko bidea. Inguru horretako galtzada-harriak kendu eta zoladura aldatzeko lanetan ari da Udala. 2019ko aurrekontu partehartzaileetan boto gehien jaso zuen bigarren proiektua izan zen hau (276 puntu), "Karakoleko" zubia konpontzeko proiektuaren atzetik (346 puntu).

Udalak, guztira, 45.210 (BEZa barne) euro bideratu ditu hobekuntza lan hauetara, eta Landa e Imaz enpresak egin ditu.

Galtzada-harriak kendu eta behin nibelak edo maila egokiak ipinita (aurrez sortzen ziren putzurik berriro ez sortzeko), akabera inprimatua duen hormigoiko armatua erabili dute zola-



dura bezala. Inguruan duen galtzada-harriaren forma berdina emango diote. Lan horiekin, hobekuntza estetikoak ez ezik, gune honetako segurtasuna eta irisgarritasuna handitzea da helburua, Hirigintza Saileko arduradunen esanetan.

## Beira gehiago birziklatzeko kanpaina hasiko dute herriko tabernetan



**D**ebabarrenako Mankomunitateak beira gehiago birziklatzeko kanpaina jarriko du abian Deba, Mutriku eta Elgoibarko tabernetan, 2018an Eibarren eta Ermuan egin zuten modu berean. Aipaturiko hiru herrietan 100 bat tabernak parte hartzea aurreikusten dute, eta horietatik 33 izango dira Elgoibarkoak. Tabernariei beiraren birziklapenean laguntzeko, Ecodivrio enpresak eta Mankomunitateak gurgildun kuboa emango dizkie behar duten tabernei eta ahal den neurrian tabernak dau den esparruetan Vacri sistema berria ezarriko dute igluetan. Arduradunek emandako azalpenen arabera, kuboa edukiontzian eskegitzen da eta era hidraulikoan kuboko beira edukiontzira bota daiteke modu erraz eta erosoan. Iosu Arraiz Mankomunitateko presidentek esan zuenez helburua da herritarrek beren hondakinak biltzeko sistema eraginkor eta eroso bat eskura izan dezaten bermatzea, birziklatze- eta berreskuratze-politikak ahalik eta gehien bultzatzeko. Era berean azaldu zuen hondakinen bilketa eta birziklatzea Mankomunitateak dituen etorkizunerako "erronka handienak" direla, "bai berehalakoak, bai epe luzeok", eta aurreikusten dute erabaki estrategiko nagusiei aurre egin beharko dietela. Mankomunitateak aurreratu du gutxi barru aurkeztuko duela erronka horiei erantzuteko Plan Estrategikoa. Plan horren helburua ere aurreratu dute: 2030erako eskualdeko gaikako bilketaren %70a lortzea. Mankomunitateko presidentek emandako datuen arabera, 2019an zehar 2.302 tona beira bildu zituzten iglu berdearen bidez Debabarrenean, hau da, 31,5kg eskualdeko biztanle bakoitzeko. Datu "onak" direla adierazi du Arraizek, baina hobetzeko esparrua badagoela azaldu du, "aintzat hartuta Gipuzkoan 37,5kg biltzen direla batez beste biztanle bakoitzeko". Horregatik sustatu nahi dute tabernen inplikazioa gai honetan. Debabarrena eskualdean 413 edukiontzi-iglu daude eta beira bakarrik bota daiteke horietara, ez tapoi edo bestelako kristalik. Beira ez diren hondakinak iglura botatzen badira, birziklatzea zaildu eta edukiontziko beira kutsatu daitekeela ohartarazi dute Mankomunitateko arduradunek.

## Hiru lanpostu betetzeko deialdia egin du Udalak

2020ko Enplegu Planaren barruan, Elgoibarko Udalak, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuekin elkarlanean, aldi baterako 3 lan kontratu eskaintzen ditu. Askotariko eginkizunetarako operario lanpostuak dira, herri-lanetako peoiak izateko. Kontratu bakoitzaren iraupena 4 hilabetekoa da. Informazio gehiagorako: <https://labur.eus/Y9ZnV> webgunea kontsultatu daiteke.

## Udal Euskaltegian izenematea zabalik

Debabe Udal Euskaltegian 2020 - 2021 ikasterterako izena emateko aukera dago oraindik. Interesatuak Udal Euskaltegia deitu dezakete 943 742 731 edo Aita Agirre kulturguneko 3. solairuan dagoen bulegora joan. Goizetan 09:00etatik 13:00etara eta arratsaldeetan 15:30etik 19:30era.

## Animaliei buruzko argazki lehiaketa antolatu du Ludotekak

Elgoibarko Ludotekak animaliak protagonista izango dituen argazki lehiaketa antolatu du HH5etik LH6ra arteko umeentzat. Elgoibarren ateratako argazkiak izan behar dira, eta animaliak agertu beharko dira. Interesatuak 656 740 793 telefonora bidali ditzakete argazkiak WhatsApp bidez edo bestela, [ludotekaelgoibar@gmail.com](mailto:ludotekaelgoibar@gmail.com) helbidera ere bidali daitezke posta elektronikoz. Antolatzaileek bi sari banatuko dituzte: HH5 eta LH3ko umeen arteko irabazleak Basondorako lau sarrera eskuratuko ditu, eta LH4tik LH6rako umeetan irabazten duenak Txindokiko Itzala abentura parkerako lau sarrera jasoko ditu. Argazki guztiak Kultur Etxe aurreko lokalean jarri dituzte ikusgai irailaren 29tik urriaren 1era, eta ikusleek argazkirik gustukoena aukeratzeko aukera izango dute. Boto gehien jasotzen dituen argazkiaren jabeak Pitxintxun gastatzeko 30 euroko bonoa eskuratuko du.



## Elgoibar Lagunkoia egitasmoaren lehen diagnosis aurkeztu dute



Elgoibarko Udalak eta Elgoibar Lagunkoia talde eragileak lehen faseko diagnosis-  
ren behin-betiko dokumentua aurkeztu dute. Elgoibar Lagunkoia ekimenaren hel-  
burua da adinekoek eta, oro har, herritarrek udalerrria hobetzen parte hartzea,  
begia beti ere, adinekoengan jarrita. 2018ko azaroan, Elgoibarko Udalak, Elgoibar  
Lagunkoia talde eragilearekin batera (proiektuaren buru diren hainbat elkartetako or-  
dezkariek osatua), partaidetza prozesu bat jarri zuen martxan elgoibartarren iritziak eta  
iradokizunak jasotzeko, denen artean Elgoibar "atseginagoa" eraikitzeko. Guztira 647  
inkesta jaso ditu Udalak, eta herritar horiek egindako ekarpenekin osatu dute diagnosis.  
Eguaztenez aurkeztu zuten txostena jendaurrean, eta dagoeneko ikusgai dago Uda-  
laren webgunean. Ane Beitia Elgoibarko alkateak, Blanca Larrañaga Gizarte Ongizate  
saileko zinegotziak, Elgoibar Lagunkoia talde eragileko kideak diren Andoni Segundo  
(Duintasuna taldea), Jose Ramon Ezenarro (Nagusilan), Maria Isabel Aizpurua eta Pedro  
Andonegi (Jubilatuena Biltokiko kideak) eta Gotzone Aierdi Urruzuno auzoko auzo-alka-  
teak hartu zuten parte aurkezpenean.

Diagnosiaren lehen fase hau bukatuta, bigarren fasea hasiko dute urrian: ekintza  
Plana. Horretarako, talde eragileaz gain, hainbat azpitalde osatu nahi dituzte, galde-  
tegitik ateratako gaiak aztertzen hasteko. Beraz, proiektuan lagundu eta parte hartu  
nahi dutenek edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenek [elgoibarlagunkoia@elgoi-  
bar.eus](mailto:elgoibarlagunkoia@elgoibar.eus) helbidera idatzi edo 943 741 050 telefono zenbakira dei dezakete.

## Azken zapatuko feria eta Gazta Azoka egingo dituzte bihar Elgoibarren

Irailako azken zapatuko feria egingo dute bihar, Kalebarren plazan, baina  
Covid 19a dela-eta, baserriarren postuak bakarrik jarriko dituzte. 9:00etatik aurrera,  
beraz, Lizundia Txabola eta Basartesoeta (Basueta) baserrietako produktuak eros-  
teko aukera egongo da. Horrez gain, Gazta Azoka ere egingo dute oraingoan.  
Debarreneko lau gaztagile etorriko dira: Soralezko Egotza baserria (Ahuntz  
gazta), Eibarko Sosola baserria (Ardi Gazta ekologikoa), Mallabiko Axeleku baserria  
(Behi gazta) eta Mutrikuko Goienetxe baserria (Ardi gazta). 9:00etatik 13:00etara  
egongo da gazta erosteko aukera.

## Emakumeentzako Jabetze Eskolan izena emateko epea zabaldu dute

Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta, lau ikastaro eskainiko dituzte Emakumeen-  
tzako Jabetze Eskolan, urritik urtarrilera bitartean: *Adimen emozionala* (Eider Perez),  
*Cuando la carga mental tiene género* (Kontxi Lopez), *Autocuidado para las cuidadoras*  
(Loredi Salegi) eta *Hausnarketa taldea* (Loredi Salegi). Ikastaroak iraun bitartean  
umeentzako zaintza zerbitzua egongo da, eta *Autocuidado para las cuidadoras*  
saioan pertsona nagusiak eta mendekotasun egoeran daudenak zaintzeko zerbitzua  
ere eskainiko dute. Lau ikastaro hauen bitartez emakumeen autonomia pertsonala in-  
dardu eta ahalduntzea sustatu nahi dute. Ikastaroak doan izango dira. Interesatuak  
Herritarren Arreta Zerbitzuan edo [www.el-  
goibar.eus](http://www.elgoibar.eus) helbidean eman dezakete izena, urriaren 7a baino lehen.

## Helduentzako dantza ikastaroak musika eskolan

Inazio Bereziartua musika eskolan helduentzako euskal-dantza ikastaroak eska-  
iniko dituzte aurten ere. Hasiberrientzako eta ibilitakoentzako mailak bereiztuko di-  
tuzte. Koronabirusa dela-eta, hainbat babes neurri hartuko dituzte, besteak  
beste, maskara erabili beharko dute ikasleek, tenperatura hartuko zaie sarreran,  
eskuak ondo garbitu beharko dituzte eta distantziak zaindu. Talde bakoitzean  
gehienez hamabost lagun hartuko dituzte. Klaseak merkatu plazan eta musika esko-  
lan bertan emango dituzte urriaren 5etik aurrera, astelehen eta eguaztenez,  
20:30etik 21:30era. Larrain dantza, Baztango zortzikoa, fandangoa eta arin  
arina edota jauziak irakatsiko dituzte, besteak beste. Interesatuak musika esko-  
lan bertan eman dezakete izena.

## ▶ UXUE ALBERDI IDAZLEA

'Dendaostekoak' kronika literarioa aurkeztu du Uxue Alberdik (Elgoibar, 1984), bere seigarren liburua. Denda baten (Pitxintxu) eta garai baten historia da, nagusiki bi ahotsek kontatua. Izaskun Estibari-zena da ahots bat, eta Mari Jose ahizparena bestea, eta bien arteko maitasun eta konplizitate istorioa da 'Dendaostekoak', haien mundua harra-  
patzeko ahalegin bat. Idazleak berak dio Xabier Gantzarainek eman diola liburua zer den galdera-  
rentzako erantzunik azertatuena azalean. "Ornito-  
rriko bat da liburua. Hibrido sailkaezin bat. Desagertzeko arriskuan dagoen espezie batentzako paperezko etxe bat bere irudira egina". Aurkezpe-  
neko bideoa: [barren.eus](http://barren.eus)

- AINARA ARGOITIA -



# "Denda baten, bizitzeko modu baten, eta elkarri eusteko modu baten taupada bildu nahi izan dut"

♦ **Badakigu etiketatzea zaila dela, baina ondo dakizu kazetarioi zenbat gustatzen zaizkigun etiketak. Zer da liburu hau?**

Kontakizun bat da, narrazio bat, ez fikziozkoa. Ez neukan gogorik niretzat hain hurbilekoa den zerbait fikzionatzeko, baina ezta kazetaritza deitzen dugun horretatik jotzeko ere. Kontatu nahi nuen istorioan inplikatzeko, literaturaren beharra sentitu nuen, eta informazioa jasotzeko orduan kazetari modura jardun dudala esan daitekeen arren, liburua kazetari-lan bat baino indutzuagoa dela esango nuke. Ez dago liburuan nik asmatutako ezer, ez dago beraiek esan ez dutenik ere, baina beraien diskur-

tsoa antolatu eta narrazioari interesatzen zitzaiena apartatu dut, atalak nahieran josi, oihartzunak sortu. Beraz, galdetu diet niri interesatzen zitzaizkidan gauzei buruz, baina ez horrenbeste pertsonalki interesatzen zitzaizkidan gauzei buruz, baizik eta narrazioari interesatzen zitzaizkionei buruz. Liburuaz Harkaitz Canok esan izan dit ez dagoela kazetariaren eskafandratik idatzita, ezpada idazlearen buzotik. Kronika literarioa deitu diogu, fikziorik ez duenez ez delako nobelaren kontzeptu tradizionalen sartzen, baina gaur egun, Espainian eta Hego Ameriketara hau nobela bat litzateke, inolako arazorik gabe.

♦ **'Miñan' [Ibrahima Baldek ahoz eta Amets Arzallusek eskuz idatzitakoa] nobelatzat saldu dute adibidez, eta berez, ariketa periodistiko antzekoa da. Zergatik bat nobela eta bestea kronika? Liburuaren gaiak ba al du zerikusirik?**

Erabaki editoriala da berez, baina nik uste izan dezakeela zerikusia kontatzen den gaiarekin. *Miñan*-en kontatzen dena epikoagoa da, inpaktantea eta guretzat exotikoa. Urruntasunak ere bihurtzen du guretzat, nolabait, literario. Abenturazko liburu gisa ere irakur daiteke *Miñan*, askotan hemengo irakurle zurioi kostatzen zaigulako irakurtzen ari garen hori fikzioa ez



*“Sekula ez nuen liburu hau argitaratuko ez banuen uste hemen kontatzen denak balio literarioa duela”*

eta feministak izanda ere, ez direnak feminista akademikoak. Gustatzen zait Miren Agur Meabek zioena, edozein bizitza arrunt birbaloratu daitekeela literaturaren bidez.

#### ◆ Zer premisatik abiatu zara?

Ez dut fikziorik egingo, ez dut “exhibizio literarioak” margenik hartuko, hau da, ez dut esaldi luzerik ez pentsamenduren bihurritzerik erabiliko, eta saiaturiko naiz xumearen ederra harrapatzen. Garbi neukan, liburuan, narratzaileek ezin zutela hitz egin beraiek hitzez bezala, eta horregatik sortu dut hizkuntza bat narratzaileen neurri sinesgarria dena. Ez dute analisirik egiten, ez dute teorizatzen, eta ez dute poetikotasunez hitz egiten. Saiatu naiz eguneroko bizitza, jende normalaren arteko igurtzia eta intimitate bat konpartitu ez arren komunitate bat konpartitzen duen jende horrek sortzen duen sarea dibujatzen, esplikatatu gabe.

#### ◆ Liburuan ez zara agertzen eta aurkezpenetan ere ez duzu esan narratzaileak ama eta izeba dituzunik. Esan duzu, baina, ez zenukeela nahi omenaldi partikular modura irakurtzerik.

Bi gauza dira. Batetik, liburu baten atzean, beti dago idazlearen bulkada pertsonal bat: zergatik esertzen den idazle bat luzez historia jakin bat idaztera. Hor beti dago zauri bat, min bat, beldur bat edo beste edozer. Beti dago motibo pertsonal bat, baina horrek ez dauka zerikusirik obrarekin. Denok egon gara noizbait maiteminduta, baina denok ez ditugu sortu maitasun poema brillanteak. Are, maiteminduta egoitea bera da askotan baldintzarik okerrenea maitasun poema onak sortzeko. Beraz, gauza bat da hori, motibo pertsonala, baina nik ez nuke sekula liburu hau argitaratuko baldin uste ez banu hemen kontatzen denak balio literarioa duela. Denda baten, bizitzeko modu baten, harreman-tzeko modu baten eta elkarri eusteko modu

baten taupada bildu nahi izan dut. Ni neu ez naiz herri jakin batekoa sentitzen, ez bada Euskal Herrikoa, baina nire ama eta izeba, askoz lotuago daude herri bati eta leku bati, eta mundutxo hori josi nahi izan dut. Dena den, Elgoibarko aurkezpenean badut bulkada hori zein izan den azaltzeko asmoa. [Herenegun izan zen aurkezpena].

#### ◆ Eta zer izan da ba zure min hori?

Denda dela nire azkeneko lotura jaioterriarekin eta ikusten dudala lotura hori ere aurki galduko dudala. Umetan, nire mundua denda zen, eta hori badoa. Duela pare bat urte jabetu nintzen hortaz, Pitxitxuk 40 urte bete zituenean. Argazki zaharrak biltzen hasi ziren eta nik ezin nien malkoei eutsi. Denda da nire umetako paisaia, ni eraiki nauena. Niretzat denda izan da ama, guk umetan ama ez genuelako etxean ikusten berandura arte. Eta kuriooa izan da hau dena pandemia garaian. Lagunei ere esan diet: Zer egin dut nik ziurgabetasunez betetako garai honetan? Uterora bueltatu, dendara itzuli, amaren ondora. Dena den, liburu publikatzearen helburua ez da terapeutikoa izan. Helburua literatura egitea izan da.

#### ◆ Ufalak, Jaime Arrese, Sebastian Aizpiri eta Patxi Zabaletaren hilketak, ikastolaren publikazioa, bortxaketa bat, kale eta garai baten erradiografia... Elgoibarren zaila zaigu begirada urruntzea. Nola uste duzu hartuko dutela irakurleek? Zer diote protagonistek?

Elgoibarren, denda partikular bat, kale partikular bat, hilketa partikular batzuk eta ikastola partikular bat ikusiko ditu irakurleak ezinbestean, baina kontua da partikularitasun hori estrapolagarria dela beste herri batzuetara. Bistan da Elgoibarren beste modu batera irakurriko dela liburu eta aurkeztu ere hala aurkeztuko dut. Badira ia 20 urte ez naizela Elgoibarren bizi eta uste dut horrek laguntzen didala. Liburuan jasotzen dudana mundua ez da nire mundua, amarena eta izebarena baizik. Beraz, iruditzen zait liburu honek gehien ukitu dezakeen jendea ez dela nirekin harreman zuzena daukana, baina bai Izaskun eta Mari Joserekin, eta, bai, jakina, arduratzen nau haien urduritasunak eta honek haiei sor diezaieke-

dela sinestea. Hizkuntza aldetik ere poetikoagoa da, aisago ulertzen dugu literarioztat. Bi kontu nahasten dira: batetik, literatur generoen arteko mugak oso lausoak direla, eta bestetik, zeri esaten diogun literatura. Zeri irizten diogun kronikagarri eta zeri ez; zer iruditzen zaigun hizkuntza literarioa eta zer ez. Idazten ari nintzen bitartean, halako mesfidantza maskulino bat sumatu nuen inguru literarioko hainbat gizonen partetik, esanez bezala ‘baina nolatan da denda bat kronikagarri?’. Liburuan adinean gora doazen ikasketarik gabeko (esango lukete) bi ahizpa dira narratzaileak. Hemen ez dira aparteko bizitzak kontatzen. Narratzaileak ez dira puntakoak ezertan, ez jakintsuak, ez ezagunak, ezta hiztun trebeak ere. Bi pertsona arruntak kontatzen da. Baina herri honetan asko dira hiztun trebeak ez direnak, ikasketarik ez dutenak,

*“Hemen ez dago minimalismorik, ez erudiziorik, ez dotoreziarik. Hitz txikiekin idatzitako liburua da”*

enak, errealak diren gauza asko mugitzen dituelako.

♦ **Nolakoa izan da liburua idazteko prozesua?**

lazko urritik aurtengo martxora, asteazkenero bildu naiz ama eta izebarekin eta ehunka galdera egin dizkiet. Prozesu oso adostua izan da. Ez dago liburuan beraiek kontatu nahi izan ez duten ezer, baina, jakina, horrek ez du esan nahi urduri ez dau denik, ez gaudenik. Garbi daukat eragingo duela halako astindutxo bat, baina uste dut, lan literarioaz parte, hau dena jasota lagatzea badela zerbait ederra. Dena den, gauza bat: esango nuke narratzaileak Izaskun eta Mari Jose diren arren, liburua ez dela horrenbeste beraiei buruzkoa.

♦ **Denda. Ez du ematen ikuspuntu txarra inguruari begiratzeko.**

Denda batetik jende asko pasatzen da eta dendatik gauza asko ikusten dira. Dendari batek ez dizu antropologiaz hitz egingo, ez dizu teoriarik egingo, baina esango dizu adibidez nola gastatzen duten gizonek eta nola emakumeek. Gauza kuriosoak badaude: Adibidez, emakume asko daude belarritakoekin obsesionatuta, baina erlojuekin obsesionatuta dauden bezero bakar biak gizonezkoak dira Pitxintxun. Egin daiteke irakurketaren bat hor ere. Dendaz galdetu diet, baina denda ezin da bereizi familiatik, maitasunetik, gatazkatik, garaitik... Eta zentzu horretan sentitzen dut oso eskuzabalak izan direla nirekin. Bartzetan sentitzen nuen ez zidatela hitz egiten beraien alaba banintz bezala, distantzia hartzen zutela. Luxu bat izan da ama eta izeba entzun eta ulertu ahal izatea emakume independente moduan, amatasunetik eta izebatasunetik kanpo. Horretaz ez da propio hitz egiten liburuan, baina ikusten da.

♦ **‘Orain zikinak min egiten du begira. Ezkutatu egiten da’. Normatik kanpokoa erakusteko ahalegina da zurea hasi eta buka, zikina eta garbia esaten dugun hori zalantzan jartzeko saiakera.**

Bai. Narratzaileak bi emakume dira, medioetan interesgarritzat jotzen ez direnak. Historiaren dendaostean, familia

baten, jende baten, garai baten dendaostean jardun naiz aztarka, eta aukeratu behar izan dut gauzak nondik kontatu, zein berebarekin kontatu, eta zeri deitu zikina eta zeri garbia; zeri deitu literatura. Narratzaileek hizkuntzarekin duten harremana erakutsi nahi izan dut, esaterako, eta kontatu dut josten bezala egiten dutela: narrats, baina praktiko. Hemen ez dago minimalismorik, ez erudiziorik, ez dotoreziarik. Hitz txikiekin idatzitako liburua da. Galdetu diot neure buruari zergatik sentitzen naizen hain eroso Pitxintxun edo antzeko ezaugarrietako beste denda batean... eta hori da.

♦ **Zergatik?**

Denda hauek ez dira gaur egungo kafetegiri zuri eta super argizatuen modukoak, ume jaioberri batekin ere lasai sartzekoak. Guztiz kontrakoak dira. Bete-beteak daude eta askotan ez daude txukun-txukun, ez diote Feng Shuiri jarraitzen. Pitxintxun, ikurrinak josteko, oihala lurrean zabaldu eta puzzleekin egiten dute harresia. Baina desorden horren barruan badago ordena bat, badago edertasun bat, badago bizi-modu bat. Begira galdategiaz diotenari: “Alkorta enpresa zena, alemaniarrek erosi zutena, orbangabea da orain. (...). Gabia ez da sekula gelditzen, baina enpresa horrek, kanpotik begiratuta, ez du lehengoaren inolako antzik, inork ez luke galdategia denik igarriko”. Orain, ez da arroparik esegitzen kanpora eta kotxe-tailerrek pasarelak dirudite. Lehen, Sigman jotzen zuen sirenak eta langile guztiak buzoak jantzita irteten ziren kalera. Han ez zen zikinik ikusten; buzodun langileak ziren haiek. Erreparatu Bilbori. Lehen, Bilbo zikina zegoen, baina zikinak erakusten zuen zer ari zen gertatzen. Orain, ikusten dugu titaniozko etxe bat, baina inork ez daki hor barruan zer gertatzen ari den, nora mugitzen diren diruak, zer kultur politika dauden atzean. Berdin Tabakaleran. Badago zerbait dotorea

zaiguna hor, baina espazio hori norentzat dago egina? Ekonomia maila batetik goragoko jendearentzat, batez ere jende gaztearentzat, jende guapoarentzat. Zer dago distiraren atzean? Liburuan erakusten den mundua beste bat da. ‘Ia, helduko diogu benetan inportantea denari?’ esaten digute. ‘Zer behar duzu, zinta hori bat eskolako jaialdirako? Lasai, moztu hau eta egingo dizut’. Gauzak perfektu egiteari baino, egiteari berari ematen zaio garrantzia. Hori dena da Pitxintxu eta inguruak denda asko, baina idealizatu gabe. Liburuak inguruaren irakurketa kritikorako balio lezake. Idazten ari nintzela sentitu dut hemen bazeudela gako garrantzitsuak bizitza bizigarriako: kezka soziala, jendearen arteko igurtzia, garaiari lotuta bizitzea, jakitea iritzia ematen, baina aldi berean izatea beti dendako atea zabalik eta ezberdinekin harremantzen jakitea...

♦ **Badira azpimarratzeko esaldiak horri lotuta. Bat: ‘Dendaria zarenean ezin zara jendearengandik sobera aldendu’.**

Bai, etxean eta on-line lan egiten duenarentzat errazagoa da bando batera letratzea. Egunero jende askorekin baldin bazaude, konplikatua da egunerokoa, baina era berean, humanoagoa da. Orduan konturatzen zara ertzez, jendearen gabeziez, beharrez... Gaur traba egiten digun horrek egiten gaitu gizaki. Izaskuni eta Mari Joseri entzunez konturatu naiz zenbat jende dagoen bere beharrian sozial eta emozionalak, egunero, herriko denda, elkarte eta tabernetan betetzen dituen. Hemen, normaren barruan sartzen bazara eta urte produktiboen barruan baldin bazaude, ondo, baina bestela gizarteak bota egiten zaitu. Esaten dutenean dendak logika familiarretik herri logikara pasatu zirela hortaz ere ari dira. Lehen, gizartea familia zegoen antolatuta. Familia bakoitza ekonomia-unitate bat zen, baina halako batean hasi ziren merkataritza elkarteak sortzen, hasi ziren herri aldizkariak lortzen, gaztetxeak zabaltzen... Kontua da, orain, logika hori apaltzen-apaltzen ari zaigula eta zaputz halako bat badugula, ez dakigulako zeintzuk diren edo ez zaizkigulako atsegin sortzen ari garen logika be-



*“Liburua ez da nostalgikoa, baina seinalatzen dira bizitza duinerako inportanteak diren zenbait gauza”*

riak. Aldaketa garaian gaude, eta arriskuak ikusten ditugu, baina nik nahi nituzke ikusi aukerak ere.

♦ **Ez dugu izenburura eraman duzun ideia aipatu: dendaostea.**

Kontzeptu inportantea da, batetik, bertan egin ditugulako elkarrizketak, eta bestetik, dendaren parte gordea delako dendaostea. Eskaparatea da garbia, erakusgarria, eta dendaostea da, iluna, sarri isildua. Bizitzaren dendaostearen kontua beti erabili dut buruan. Zer erakutsi dugu beti literaturan eta zer gorde? Zein da gure hizkuntzaren dendaostea? Kontzeptu horien inguruan jardun nahi nuen. Bada beste ardatz bat aipatu ez duguna eta niretzat inportantea dena: ibaia. Ibaia dendaosteari lotuta dago Pitxintxun. 42 urte dira denda zabaldu zutela eta urak jarraitzen du turrustan ibaian. Denboraren joanaren metafora izan da niretzat ibaia. Mugimendua. Hori ere bilatu dut: liburua izan zedila arina, mugimendu handikoa.

♦ **Auzoa, herria... logika hori galtzen ari da. Galtzen ari den horren erradiografia da hein batean zurea. Pello Lizarralde mundu bati, izate eta bizitzeko aldarte bati ematen dio agurra ‘Argiantza’ liburuan. Badu horretatik ere honek, baina nostalgiarako tarterik apenas uzten den.**

Ez dut oraindik ‘Argiantza’ irakurri, baina Dendaostekoak ez da batere liburu nostalgikoa. Ni neu nahi baino nostalgikoa naiz, baina liburua ez da halakoa, narratzaileak ez direlako batere nostalgikoak. ‘Guk gurea egin dugu’ esaten dute. Itxiera baterantz gerturaten ari dira, bai, baina aurrera begiratzen dute. Ez dute nostalgiaz putzuan erortzeko astirik. ‘Hemen, geldirik ez’ agintzen diete dendako langileei ere. Hala ere, uzten du har bat: Zer egiten ari gara gure kaleekin? Pandemia garai hau baliatu beharko genuke eskolatatik umeak ateratzeko, natur zientziak ikastera mendira joateko, herrian buelta bat emanaz ikasteko historia... Nostalgia ez da botika ona, paralizatu egiten gaituelako. Liburua ez da nostalgikoa beraz, baina seinalatzen dira bizitza duinerako inportanteak diren zenbait gauza. Ez da haiei buruz hitz egiten, baina erakusten

dira. Niretzat, adibidez, garrantzitsua da adiskidetasunak daukan pisua eta jendearekin egunero gurutzatzeak bizitzari nola eusten dion ikustea. Liburuan esaten digute zein garrantzitsua den emakumeek inguruko lurra zapaltzea eta gauzak perfektu egitea baino garrantzitsuagoa dela gauzak egitea bera. Dendak iraun badu, oreka xeble bati esker izan da. Garaian kontra egin beharrean, garaian alde egin dutelako iraun dute, eta hori printzipio batzuei uko egin gabe egin dute. Irunen Brontë itxi dute, eta 100.000 biztanleko periferian ez dago liburu denda independente bakar bat ere; frankiziak bakarrik.

♦ **Liburuaren azken era eman duzun koadro horrek, San Frantzisko kalean 1978an zeuden negozioei eta orain daudenei erreferentzia egiten dien horrek, zirrara halako bat eragiten du.**

Kalean gora paseo bat ematea proposatu nien, hotz-hotzean ikusteko ariketa horrek zer eragiten zigun. Eta konturatu gara, lehen, negozioek familia izenak zituztela, eta orain, ez; lehen, tailerrak zirela denda asko, saldu ez ezik ekoizte ere egiten zutelako haietan. Lehen, ez zegoela frankiziarik, eta orain, aseguru etxeak eta inmobiliariak ugaritzen ari direla; bitartekariak, alegia. Zeinentzako herriak egiten ari garen erakusten du taulak.

♦ **Inguruotako liburudenda bakarra da Pitxintxu. Bada aipamen bat, azpimarratzekoa: “Ez dakit irakasleek non erosten dituzten liburuak; hemen ez. Irakurtzen duten ez dakit”. Asier Serranok hemen esandakoa gogorarazi dit: “Horrenbeste kezkatzen bagaitu haurren irakurzaletasun ezak har dezagun helduok liburu bana besapean”.**

Pitxintxun espazioaren %40 okupatzen dute liburuak eta saltzen dutenaren beste horrenbeste ere liburuak dira. Eta bai, inguruan ez da beste liburu dendarik gelditzen.

Bi gauza esango dizkizut: irakasleek irakurtzen ez baldin badute, alferrik dela ikasleei irakurtzeko eskatzea, eta bi, oso haserre naukela literaturaz eta kulturaz egiten dugun irakurketak. Konfinamendu garaian kulturaz egin den diskurtsoa eta kulturagileoi eskatu zaiguna lotsagarria iruditu zaizkit. Eskatu zaigu populua entretenitzea, eta eskatu zaigu, sarri, fabore bat egingo baligute bezala. “Orain konturatu gara zein inportantea den kultura”, entzun dugu. Gezurra! Mundua gelditu da eta kulturagileak txotxongilotzat hartu gaituzte. Zientzilariak, medikuak, politikariak... entzun ditugu, eta kultura isilarazi egin da. Zein programazio kultural izan du Elgoibarrek martxotik hona? Kulturak entretenitu ere egin dezake, baina kultura hori baino gehiago da. Komunitatea ardatzen duena da kultura, hizkuntzari eusten diona eta aldi berean hizkuntza berritzen duena. Eta gure kasuan, euskal kultura, geuk bakarrik egiten dugun zerbait da. Asko kezkatzen nau hizkuntzarekin eta kulturarekin gertatzen ari denak, jende askoren urte askotako lana jartzen ari da kolokan.

♦ **Narratzaileena oso besteko perfila da zurea. Dendaostea da haiena, eskaparatea zurea. Zer ikasi duzu haiengandik liburua idaztean?**

Idazle izateko dendaostea betea behar da, eskaparatearena albokalte bat dela esan genezake. Urteak pasatzen ditugu itzaletan lanean plazara irteerako. Dena den, amari eta izebari hamaika gauza ikasi dizkiet: haien independentzia ariketa nabarmenduko nuke batetik, beraien neurrirako bizimodua egin dute, teoria handirik gabe. Ekinez egin dute. Miresten dudan beste zerbait da, eta inbidia handia ematen didana bide batez esanda, bi ahizpek nola eusten dioten elkarri. Beraien bizirautearen zutabe nagusi dira. Lotura hori miresten dut, bai gurasoengandik askatzeko modua eta baita senarregana edo gurasotasunerako modu independente batean lotzeko modu hori. Beraien lanarengatik kezkatzen ere ez ditut sekula entzun. Alaitasuna ikasi diet, eta mugimendua. Arintasuna.



## ▶ AMAIA NAUSIA PIMOULIER

HISTORIALARIA

# “Europar izan den feminizidio handiena izan zen sorgin ehiza”

Amaia Nausia Pimoulier historialariak (Iruña, 1982) 'Emakumeen egoera Nafarroako konkistaren testuinguruan' izeneko hitzaldia eman zuen joan den martxoaren 11n, 'Aro Modernoa: Euskal Herria mundura zabaltzen' hitzaldi zikloaren barruan. Koronabirusaren pandemiak zikloa bertan behera uztera behartu zituen antolatzaileak: Elgoibarko Izarra eta Udala. Hala, Jose Antonio Azpiazu Elortza historialari eta antropologoak armagintzaren inguruan ematekoa zuen hitzaldia eta Javier Elorza Maiztegi historialariak Elkanok eta euskal marinelek munduari lehen bira eman zuten garaiaz eman behar zituen azalpenak entzun gabe gelditu ginen. Iraila hasteaz batera batu dira antolatzaileak, zikloari berriro noiz eta nola heldu aztertzeko, baina egoera zein den ikusita, geroagorako uztea erabaki dute, zehaztu gabe noiz helduko dioten. Bitartean, koronabirusak eragindako eten hartan eman gabe laga genuen elkarrizketa ekarri dugu hona.

- AINARA ARGOTIA -

### ◆ Historian beti sailkatu izan gaituzte genero ikuspuntuaren arabera, baina zergatik da horren berezia XVI. mendea?

Hasteko, Erdi Arotik Aro Modernorako trantsizio mende bat delako Europar. Gaur egun ezagutzen ditugun estatu modernoak ere mende horretan sortutakoak dira, eta eraikitzen ari ziren estatu horiek, monarka berri horiek, helburu bat izan zuten: Erdi Aroan jauntxoaren artean banatua zuten boterea zentralizatzea eta gizarte-eredu berria sortzea. Disziplinamendua jarri zuten martxan, eremu publikoan zein pribatuan. Horretarako, familia eta hezkuntza instituzioan oinarritu zen estatua. XVI. mendean, Trentoko Kontzilioa egin zuten [Erreforma protestanteari erantzuteko eta dogma eta sinismen katolikoa indartzeko elizako kargu nagusiek egin zuten

batzarra], Erreforma eta Kontrarreformaren garaia ere izan zen, eta testuinguru horretan beste aldaketa batzuk ere eman ziren. XVI. mendean, familia eta hezkuntzaren instituzioak funtsezkoak bihurtu ziren estatuarentzat, ulertzen zutelako familia bakoitza estatu txiki bat zela eta estatu txiki horrek ondo funtzionatzen bazuen, estatu handiak ere ondo funtzionatuko zuela. Horretarako familiakide bakoitzak oso argi izan behar zuen zein zen bere rola. Agindua argia zen: gizona izango zen *pater familias*, etxean nahiz etxetik kanpo aginduko zuena, eta emakumea gizonaren esanetara egongo zen beti, eta batez ere, ama izatea izango zen bere eginkizuna. XVI. mendean emakumeek hainbat eskubide galdu zituzten, batez ere eremu publikoan, eta eremu pribatura zokoratu



gintuzten: familiara, zaintzaren arduetara eta erreprodukzioa. Emakume idealaren inguruko eskuliburu asko argitaratu ziren, emakumeek argi izan zezaten nolakoak izan behar ziren, emakume ezkondu perfektua, alargun perfektua edo neska ideala izateko.

♦ **Emakumeek orduan ere jopuntuan. Zergatik?**

Betidanik, patriarkatuaren sorreratik, badago emakumearen inguruan ikuskera negatibo bat, uste delako emakumeek arriskutsu garela emakume izate hutsagatik. Arrazoi biologikoak eman izan dituzte hori argudiatzeko: gu ahulagoak garela, batez ere arrazionalki. Ez zaigu pentsatzeko gaitasunik aitortzen, eta 'inozagoak' garenez, ezin ditugu gure pasioak kontrolatu, eta horregatik, 'tentagarriak' gara, eta jakina, arriskuan jartzen ditugu gizonak. Horregatik izan behar gara beti gizon baten menpeko. XVI. mendean, baina, diskurtso patriarkal horri kapitalismoa sortu zela gehitu behar zaio. Sortu berri zen kapitalismo horrek eskulana behar zuen produkzioa handitzeko eta ezinbestekoa zitzaion haur gehiago jaiotzea, eskulana ziurtatzeko. Eta justu, garai hartan, XVI-XVII. mendean, Europan krisi demografiko handia izan zen. Oinarrizko produktuak izugarri garestitu ziren, pobrezia hazi egin zen eta jendeak herrietatik hirietara alde egin zuen saldoan, aukeraren baten bila. Biztanle kopuruak heren bat egin zuen behera Europan [izurri beltzaren garaitik Europak ez zuen halakorik ezagutzen]. Horregatik guztiagatik jaiotza-tasa zaintzea estatu kontu bihurtu zen, eta horregatik, era berean, hainbeste liburu eta hainbeste esfortzu emakumeen sexualitatea kontrolatzeko. Horregatik galdu zuen emakumeek horrenbeste eskubide, esaterako hau: etxetik kanpo hainbat ofiziotan lan egiteko eskubidea. Sexualitatearen kontua ere malguagoa zen Erdi Aroan eta ezkontzaren gaia ez zegoen horren araututa. Horregatik guztiagatik ez da harriztekoa sorgin ehiza ere mende honetan ematea.

♦ **Sorgin ehiza aztertu duzu. Zeintzuk ezaugarri zituen?**

Emakumeen kontrako disziplinamendu bat izan zen sorgin ehiza. Kasuen %80-90ean salatuak emakumezkoak izan ziren, gehienetan alargunak edo bakarrik bizi ziren emakumeak, gizon baten menpe ez zeudenak, nolabaiteko autonomia eta nortasuna zutenak. Badakigu kasurik gehienetan herriko sendagileak edo emagin lanak egiten zituztenak izan zirela sorgintzat hartu zituztenak, eta ez da zaila asmatzen horren arrazoiak: amei umeez erditzen laguntzen zieten, baina abortatzen ere laguntzen zieten haurdunei eta haurdunaldiak saihesten ere bai beste emakume batzuei. Europan 100.000 lagun baino gehiago hil zituzten sorginkeria leporatuta. Modu antolatu eta sistematiko batean egin ziren hilketa horiek guztiak. Aitzakia bat izan zen sorginkeria, eta oso eraginkorra, bide batez esanda.

♦ **Aro Modernoa deitzen da, baina Erdi Aroa baino ilunagoa izan zen itxuraz. Ala?**

*“Sinestarazi digute historian gu ez garela garrantzitsuak izan, eta hori bada emakumeen kontrako indarkeria mota bat”*

Bai. Moderno hitzak despisterako bidea eman dezake, baina ez dugu ahaztu behar iraganaren irakurketa gizonen begiradatik egiten dugula beti eta haien ikuspuntutik dela Modernoa aro hori. Erdi Arotik Aro Modernorako trantsizioari ere Berpizkunde deitu izan zaio, baina horrexegatik da. Tesirako bibliografia irakurtzen ari nintzenean, *¿Tuvieron las mujeres renacimiento?* artikularekin egin nuen topo. Guk ez dugu berzpikunderik

izan, ez. Gure ikuspuntutik, Aro Modernoa atzerapausoa izan zen. Kapitalismoaren ikuspuntutik eta androzentrisimo horretatik normala da, baina, Moderno deitu izana. Patriarkatuak hasieratik esplotatu zuen emakumeen erreprodukzioarako gaitasuna eta patriarkatutik ikasi zuen kapitalismoak produkzio gaitasuna handitzen, besteak esplotatuz.

♦ **Historia berriedaztea dagokigu hortaz.**

Bai. Begirada aldatu behar dugu. Genero historiografia egiten dugunok beti esaten dugu galderak aldatu behar ditugula. Esaterako, nire aurrekoek oso-oso ongi ikertu dute sorgin ehiza Euskal Herrian. Izenak eta datuak bildu dituzte, eta mapak, eboluzioa eta auzitegien papera [auzitegi zibilena nahiz Inkisizioarena]... aztertu dituzte. Lan ikaragarria egin dute, baina badago galdera bat erantzun gabe utzi dutena: zergatik ziren auzipetuen %80-90 emakumezkoak? Horri erantzun behar diogu, Europan izan zen feminizidio handiena izan zelako. Sinestarazi digute historian gu ez garela garrantzitsuak izan, eta hori bada baita emakumeen kontrako indarkeria mota bat, menpe edukitzeko modua den heinean. Non ez gara garrantzitsuak izan? Gizonak protagonistak ziren eremuetan, botere guneetan, oso emakume gutxi egon dira, bai, eta egon direnek, gainera, balio oso maskulinoak hartu zituzten, botere hori gauzatzeko. Baina beste eremu askotan historia egin dugu. Jakinduriaren eta emozioen ahozko transmisioan esaterako, emakumea protagonista izan da, eta argia eman behar diogu horri guztiari, horren kontzientzia hartzeak askeago egingo gaituelako.

♦ **Sorgin ehiza Inkisizioarekin lotu izan da urteetan, baina auzitegi zibilek ere jazarri zituzten emakumeak.**

Topiko bat izan da hori. Egia da Inkisizioak protagonismo handia izan zuela, baina datuek erakusten dute hasiera batean, XVI. mende hasiera horretan, jazarpen handiagoga egin zutela auzitegi zibilek. Adibidez, hemen, Nafarroako Piriniotan, Balantza lizentziatuak ekin zien sorginkerian aritzeagatik prozesuei. Balantzari Nafarroako Errege Kontseiluak mandatu bat eman zion: kondanatuak herrietan bertan exekutatzeko, harrapatuak izan ez zirenentzat eta laguntzaile izandakoentzat zigor eredugarria izan zedin. Eta hala egin zuen. Ezaguna da 1525eko ekainean Auritzen egindako exekuzio publikoa, ordu arte ia inoiz ikusi ez bezalako. Hainbat lagun exekutatu zituzten, Nafarroako Gorte Nagusiaren aginduz, eta ez Inkisizioaren aginduz. Auzitegi Zibilek heriotz zigor gehiago ezarri zituzten Inkisizioak baino. Era berean,

argi ikusten da herri protestanteetan emakumeen kontrako heriotz zigor gehiago izan zirela herri katolikoetan baino. Ez naiz ni erlijio katolikoaren defendatzailea eta ez dut izan nahi gainera, baina datuak argiak dira. Sorgin ehizari amaiera eman ziona ere inki-sidore bat izan zen: Alonso Salazar y Frias.

♦ **Sorgin ehiza Nafarroarekin lotu izan da, eta bereziki Zugarramurdirekin, ziurrenik beste leku askotan baino lanketa handiagoa egin dutelako han, baina ez zen Nafarroara mugatu, ala?**

Ez, Ez. Euskal Herri osoan eman zen, baina, batez ere, Piriniotan. Eta hor badugu beste galdera bat erantzuteko, estatuan, Piriniotan bakarrik eman zelako sorgin ehiza, Euskal Herriko, Aragoiko eta Kataluniako lurretan. Nik uste dut Piriniotako zuzenbidearekin, gure sistema tronkalarekin eta emakumeak hemen zuen egoerarekin duela zerikusia horrek, baditugulako amankomunean hainbat figura juridiko, adibidez usufruktua eta dotea berreskuratze eskubidea, eta horregatik iruditzen zait emakume horien kontrako disziplinamendua izan zela. Ziurtzat ematen diren beste arrazoi batzuk ere badaude: erresuma periferikoak zirela, hizkuntza propioa zutela...

♦ **Usufruktuak edo jabea izan gabe besteren gauza bat erabiltzeko eskubide horrek eta dotea berreskuratze eskubi-deak askeago egiten zituen emakume alargunak Nafarroan?**

Bai. Ez ziren askeak, ezta gutxiagorik ere, baina bai beste herrialde batzuetan baino libreago. Nafarroako Erresumako emakume alargunek aurrera egiteko zeuzkaten baliabide nagusiak ziren usufruktua eta dotea. Nafarroan, alargun gelditutakoan, emakumeak erabakitzen ahal zuen usufruktuaz gozatzea edo bere dotea berreskuratzea. Nafarroako berezitasuna zen saria oso-oso-rik berreskuratzen zuela, ez zuela alegia senarraren familiari edo seme-alabei zati bat eman beharrik. Horregatik, sorgintzat hartu zituzten emakume asko euren gertukoek salatu zituzten, sarri seme-alabek.

♦ **Gurea gizarte matriarkatua dela ere oso zabalduta dago. Hala irizten diozu?**

Eman ditudan hitzaldi gehienetan egin didate galdera bera, ez ote garen hemen beste leku askotan baino hobeto bizi izan emakumeok hemen sistema matriarkala izan dugula-eta. 'Nire etxean amak agindu du beti, edo amonak', esaten didate. Etxe askotan amek agintzen dute, baina hori emakumeoi zaintzaren ardura egokitu zaigulako da, eta gainera, harrotasunez bizi izan dugu sinetsiz gure botere eremu naturala dela. Matriarkatuari buruz hasten zaizkidan guztiei gauza bera erantzuten diet: ez dagoela datu historikorik, ezta antropologikorik ere baieztatzeko hemen – ezta beste inongo lurraldetan ere – matriarkatua existitu zenik. Egia da patriarkatua sortu aurretik Europan izan zirela beste gizarte antolakuntza batzuk, baina horiei ezin diegu matriarkatua esan. Matriarkatua izanzen litzateke patriarkatuaren

*“Jendeari ez zaio gustatzen hau entzutea, baina gurea beste lurraldeak bezain patriarkala izan da, eta da”*



txanponaren beste aurpegia eta bete beharko lituzke ezaugarri hauek: emakumeek agintzea etxean nahiz etxetik kanpo eta gizarte horretako balioak emakumeen interesen arabera eraikitzea. Gizonen sexualitatea eta jokabide sexuala emakumeen interesen arabera kontrolatzea, adibidez. Hori ez da existitu, eta ezta gaur dugun menpekotasunaren alderantzizko hori ere: gizonak emakumeen menpe egotea. Nik ulertzen dut nahasmendua sortzea, baina halakorik ez da egon.

Usufruktuaren eta dotearen bidez izan dute emakumeek aukera beren senarren ondareak, bai beren ondasun propioak kudeatzeko, baina sistemak ematen zizkien eskubide horiek beti izan dira emakumea etxearekin lotzeko, gizarte tronkal horretan garrantzitsuena baserria zelako, eta ez hainbeste pertsona. Emakume alargun horiek eskubidea zuten ondasunak kudeatzeko, erabakitze beren seme-alabak norekin ezkondu behar ziren, erabakitze nor izendatu oinordeko... eta horrek ematen zien nolabaiteko estatusa. Eta bai, egia da Europako beste lurralde batzuetako emakumeekin alderatuta, euskal emakumeek bazituztela eskumen handiagoak eremu horretan. Horrek sortzen du nahasmendua, baina instituzioek ez zieten emakumei eskubide horiek onartzen emakume askeak nahi zituztelako, bai-zik eta etxearen kudeaketa lotu nahi zutelako. Ez diogu mesederik egiten feminismoari pentsatzen badugu hemen askeagoak

izan garela, gurea beste lurraldeak bezain patriarkala izan delako eta delako. Jendeari ez zaio gustatzen hau entzutea, denoi gustatzen zaigulako berezia izatea. Matrilinealtasuna [ondareak transmititzea amaren bidez], matrilokaltasuna [gizona izatea normalean emaztegiaren etxera ezkontzen zena]... horrelako kontu batzuk egon dira, baina hori ez da matriarkatua.



## Saskibaloia taldea izango du berriro ere Elgoibarrek

Azken bi denboraldietan ez da saskibaloia talderik osatu Elgoibarren eta herriko zenbait jokalarik Debako taldean jokatu dute. Aurten, baina, berriro taldea osatzea erabaki dute. Modelberri Elgoibar izenarekin lehiatuko dira Gipuzkoako Hirugarren Mailan, orain bi urte baino bi maila beherago. "Erretiroa gertu daukagu batzuek, urte mordoan daramatzagulako saskibaloian jokatzen, baina honakoa gure azken dantza izatea gustatuko litzaiguke", azaldu du Carlos Lahozek Michael Jordani buruzko dokumental entzutetsuari erreferentzia eginez. "Eta, garrantzitsuagoa dena, talde egitura sendo bat laga nahi diegu ondorengoei, Elgoibarrek merezi baitu saskibaloia talde bat edukitzea datozen urteetan ere. Hori izango da gure erronka", gaineratu du Lahozek. Bederatzi jokalaririk dituzte momentuz. "Adinean aurrera goaz, eta odol gaztea behar dugu. Horregatik zabalik daude gure ateak". Martitzenetan eta eguenetan egiten dituzte entrenamenduak Olaizaga kiroldegian, 20:30ean hasita. Taldera batzeko interesa dutenek entrenamenduetara agertzearekin nahikoa dela esan du Lahozek edo horretarako honako telefono zenbakira deitu behar da: 618 259 339. Pandemiaren ondorioz, oraindik ez dakite ziur noiz hasiko duten denboraldia. Gipuzkoako Saskibaloia Federazioak irailaren 27rako deitu duen bileran erabakiko dute. "Gipuzkoako lehen eta bigarren mailako txapelketak urriaren 4an dira hastekoak, baina hirugarren mailakoak noiz hasiko garen ez dakigu", dio elgoibartarrak. Hogeita hamar talde lehiatuko dira maila horretan.



## Uztargi xake azkarreko txapelketa urriaren 1ean hasiko da

Mendaroko Otarre xake taldeak bigarren urtez antolatu du xake azkarreko lehiaketa, Uztargi kafetegiarekin elkarlanean. Urriaren 1ean hasiko dituzte partidak, eta bi aste behin jokatuko dituzte. Partidak 25 minutukoak izango dira gehienez. Izena emateko 653 715 375 whatsapp zenbakira idatzi edo [xakemendaro@gmail.com](mailto:xakemendaro@gmail.com) helbidera idatzi daiteke.



## Javier Varona gailendu da arku tiroketako San Migel Sarian

2020ko Aire Zabaleko Gipuzkoako Ligaren bigarren jardunaldia jokatu zuten, joan den irailaren 13an, Oñatin, eta Ordiziako taldeko kidea Javier Varona arkulari elgoibartarra gailendu zen arku instintiboaren arteko lehiari. Hamasei lagunek hartu zuten parte modalitate horretan, tartean Elgoibarko Zarta arkulari taldeko bi kidek: Jose Ramon Cabellok eta Iosu Arrillagak (9. eta 14. postuak eskuratu zituzten, hurrenez hurren). Guztira 45 arkularik hartu zuten parte XII. San Migel 3Dko Sarian, bost arku mota desberdinekin.

**Alperrik galdu:** 'Echarse a perder'. Ezezkoan normalean.  
Ez arduratu Mikelengaittik, eztok alperrik galduko eta.

## Domekan estreinatuko dute 'Patria' telesaila HBO katean



**H**asiera batean maitatzen estreinatzeok ziren *Patria*, baina koronabirusaren eraginez atzeratu egin behar izan zuten estreinaldia, eta Donostiako Zinemaldian estreinatu zuten joan zen astean. Polemika sortu zuen telesailaren kartel nagusiak, baina estreinaldiaren ostean, kritika onak jaso ditu filmak zine adituen partetik. Gaztetan lagun izan eta urteekin haserretutako Miren eta Bittoriren azken urteetako bizitza kontatzen du telesailak. ETAK armak utzi dituen egun berean, senarra hil zioten herrira itzuliko da Bittori. Bere itzulerak iraganeko minak eta zauriak irekiko ditu, bereziki Mirenengan, iraganean hain lagun izan eta gaur egun berarengandik oso urrun dagoelako. Elena Irueta eta Ane Gabarain aktoreak izango dira protagonista nagusiak, baina telesailan beste aurpegi ezagun bat ere ikusiko dugu: Jon Olivares Elgoibarko Izarrako langile izandakoa. Joxe Mariren azalean ariko da, eta paper garrantzitsua izango du traman zehar. Horrez gain, irudien lokalizazioak ere gertutasuna emango dio telesailari, izan ere ageri diren kaleko irudiak Elgoibar, Soralue eta Donostian grabatu zituzten, bereziki. Gainera, Elgoibar, Mendaro zein inguruetako herrietako makina bat lagunek egin zituzten figurante lanak grabazioan. Ordubeteko zortzi kapituluz osatuta dago telesaila, eta domekan emango dute lehenengo atala HBO katean. Dena dela, lehenengo atala Telecinco kateak ere emango du irekian, baina oraindik ez dute data zehaztu.

### AEK euskaltegia izena emateko aukera dago oraindik

Elgoibarko AEK euskaltegia gaur amaituko da izena emateko epea. Eskolak aurrez aurrekoak izango dira, eta A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailak eskainiko dituzte. Udalak jarritako baldintzak betez gero, prezio bereziak eta bekak izango dituzte ikasleek. Informazio gehiagorako edo izena emateko: AEK euskaltegia (G. Kurutzelaegi, 10), 607 601 423 edo [elgoibar@aekeus.com](mailto:elgoibar@aekeus.com).

## Mendaroko aire libreko margo lehiaketa, bihar

Mendaroko Udalak antolatuta, margo lehiaketa egingo dute bihar herrian. *Mendaroko herria* izango da gaia, eta teknika, formatua eta euskarria libreak izango dira. Goñati pilotalekuan zigitatuko dituzte euskarriak 9:00etatik 11:00etara, eta lanak bertan aurkeztu beharko dituzte 13:00etatik 14:00etara. Lehiaketan aukeratutako lanekin erakusketa egingo dute urriaren 2tik 11ra, Lagun Betikoenean. Erakusketaren ondoren, lanak jasotzeko azken eguna azaroaren 30a izango da.

## 2021eko egutegiko argazki lehiaketan parte hartzeko epea urriaren 8a artekoa da

Elgoibarko Udalak 2021eko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu du Ongarri Argazki Taldearekin elkarlanean, eta interesatuek urriaren 8ra arte daukate lanak aurkezteko aukera. Lanen gaia *Irudi bat bazterketatik berdintasunera* izango da. Ez dira onartuko argazkiak herriko zein lekutan eta noiz atera diren aditzera ematen ez bada. Partaide bakoitzak, gehienez ere, 6 argazki aurkeztu ahal izango ditu; baina, gehienez ere, pertsona bakoitzeko 3 argazki sarituko dira. Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten duten 16 urtetik gorako pertsonak izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Argazkiak horizontalak izan beharko dira eta JPG formatuan aurkeztu beharko dira. Epaimahaiak 12 argazki aukeratuko ditu egutegi handirako, eta beste argazki bat, egutegi txikian jartzeko. Hala, Txankakua merkataria elkarteko dendetan gastatzeko 80 euroko bonuarekin sarituko dute aukeratutako argazki bakoitzaren egilea.

Honi lotuta, LH5eko ikasleentzako marrazki lehiaketa ere antolatu dute, ikastetxeekin elkarlanean. Urriaren 9ra arteko epea dago lanak aurkezteko. Udalak hamabi marrazki (Ikastolakoak 6 eta Herri Eskolakoak beste 6) sarituko ditu.





Iñigo Lamelas

## Irati Agirreazaldegi



**G**atzez jantzia, argazkiko paisaia benetan da bitxia, baina ez bertako larrainek (gatz terrazak) gordetako sodio kloruroa bezain bizia. Bai, gatza da betiko egurrezko, lurrezko, harrizko egituretan jasotako gutizia.

Gatza: jatekoak prestatzeko eta ontzeko askok erabiltzen duen produktu aberatsa; bizitasuna ematen duen gauza; edo he-daduraz, gauzak egiteko kemen edo fundamentuaren ardatza.

Gatza janariak prestatzeko eta bizitzeko erabiltzen da, bai. Horregatik, aurten izan ez diren jaiei bezalakoei bizitasuna ematen dien horrek festei gatza eta piperra jartzen diela esaten da, beraz, gauden lekuan gaudela lagun gatzduna zeinek ez du ba nahi?

Gatza plater eta pertsona batzuek soberan izaten dute, baina beste batzuek, ordea, hobe pixka bat gehiago balute. Bataioan umeari urarekin batera gatza ematen omen zaio bizitasunaren truke, beraz, bataioan gatzik eman ez zitzaiea entzunez gero, ume horrek ez du behar adina kemen edo bertute.

Gatzak eman ditu hamaika esaera. Eltzeari gatz ematen hasten zen emakumea ezkontzean edo familia osatzean etxeko ar-

durak hartzen hasten zelako bera. Garai batean emakumeentzat izaten zen esamoldea gizonezkoentzat ere erabilgarria ez ote da?

Gatza eta poza edo bizitasuna. Baina uretan erraz urtzen denez, bihotza gatza uretan bezala urtu zaigula esamoldearekin adierazten dugu zerbaitek edo norbaitek hunkitzen gaituenean sentitzen duguna. Negar malkoek edozeinen masailei kaixo esaten dietenean gatza bihur daiteke etsai zein laguna.

Gatzari deitzen zaio urre zuria, gatzarekin ordaintzen baitzen antzina erromatar soldaduen soldata; gatzelaniaz, salario esaten zaio hori delata. Orain ere edozein sukaldetan aurki daitekeen altxorra da denok bizitzen gaituena edozein plateretara botata.

Gatza platerera ezezik edalontzira ere bota izan da eta bat baino gehiago ustez sendatu urarekin nahastu eta edanda. Oinarrizko nahasketa hari gaur egungo edari isotonikoek hartu diote, ordea, txanda.

Gatzarekin batera, ordea, ura baino bada beste edaririk hori baino biziagoa. Nik Onintza Enbeitari lapurtu diot edateko hori aipatzen duen tragoa, behin irakurri bainion Mexikon berak jasotako esamolde garratzagoa: 'bizitzak limoiak ematen badizkizu, eskatu barran tekila eta gatza!' Tori hordagoa.

*"Gatzak eman ditu hamaika esaera"*

**LANA.....**

**Eskaerak**

Euskal dantzak irakasteko lagun bat behar da, Mendaron. ☎ 687 203 173

Umeak eskolara eramateko pertsona baten bila nabil.

☎ 650 840 620

**Eskaerak**

Edozein lan egiteko prest nago. 12 urteko esperientzia daukat adinekoak zaintzen.

☎ 651 573 192

Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz.

☎ 620 765 432 (Olatz).

Astelehenetik ostiralera umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz. Ordu-tegi malgua daukat eta berehala hasteko prest nago.

☎ 680 568 659

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Berehala lanean hasteko prest.

☎ 610 668 183

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 632 452 026

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 632 229 972

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka.

☎ 635 802 382

Umeak goizez ikastolara eramateko prest nago.

☎ 688 654 289

Umeak zaintzeko edo zerbitzari lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat eta euskaraz badakit.

☎ 642 186 958

**ETXEBIZITZAK.....**

Bikote elgoibartarrak arrazoizko prezioa duen pisua hartuko luke alokairuan.

☎ 619 966 696



I. URTEURRENA

*Maria Isabel Zabala Arriola*

2019ko irailaren 16an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, irailaren 27an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

**Argi bat itzali da hemen lurrean,  
berri bat piztu da han zeru ederrean,  
beti jarraituko duzu gure bihotzean.**

Etxekoak



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas  
Euzko Finantza Administrazioen Kontseilua



**ROSA Ma PINTADO**

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

**Bizilagunen komunitate bateko aktari buruzko informazioa ohar taulan jartzeak etxejaberaren baten intimitateri eragiten badio, izan daiteke arazoa komunitatearentzat?**

Nire ustez, adierazpen eta informazio-askatasun eskubidearen eta ohore-eskubidearen arteko gatazkan adierazpen eta informazio askatasun eskubidea gailendu behar da. Izan ere, informazioa interes orokorrekoa eta egiazkoa izateak muga bakarra eduki behar du: ematen diren datuak informatzeko ematea bakar-bakarrik. Kontuan hartu behar genuke ohore-eskubide hausterik ez dagoela aktan jasotakoak komunitateko etxejabeen interesekoak direnean eta aktaren edukia jabe guztiei zabaltzea araudiak zehaztutako ohiko funtzionamenduaren parte de-nean.

**Ondorioa: Bilera batean aktara eraman den informazio garrantzitsua ezin da ohore-eskubidearen urratze gisa hartu. Era berean ezin da eskubide hauste izan aktaren edukia zabaltzea. Izan ere, araudiaren arabera, komunitate baten ohiko funtzionamendurako ezinbestekoa da jabeen bilera batean hitz egin-dako gai garrantzitsuen edo hartutako erabakien berri ematea. Komunitate guztietan akta baten bidez jakinarazi eta zabaltu behar da informazioa, prozedura legalak hala ezartzen duelako.**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2






Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Ainere** zure zazpigarren urtebetetzean! Segi beti bezain alai. Patxo handi bat familia osoaren partez.



Zorionak, **Marcel**, astelehenean 3 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Jakesen partez.



Zorionak, **Garazi!** Astelehenean 5 urtetxo! Ondo pasa zure egunean! Besarkada bat etxekoen eta bereziki Mararen partez.



Zorionak, **Luken**, atzo 6 urte bete zenituelako. Familiakoen, eta bereziki, Mikelen partez.



Zorionak, **Malen**, 3 urte handi bete dituzulako. Oso ondo pasatu genuen. Etxekoen partez muxu handi bat.



Zorionak, **Elur!** Iraileko azken egunean 4 urte! Peruk, Elenek eta etxeko denok ondo pasatzea desio dizugu. Patxo handi bat.




Astelehenean 6 urte bete zenituen, **Iker**. Zorionak! Gizontxo bat egina zaude dagoeneko. Muxu bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Nora**, bihar 9 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak, **Maitane**, bihar 6 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoen eta kuadrillako lagun guztion partez, neska handi!. Gozatu zure eguna.



Zorionak, **Inar!** 2 urte handi beteko dituzu bihar! Primeran pasako dugu elkarrekin! Besarkada bat lepo-lepotik inguruko denon partez.



Zorionak, **Naroa!** Dagoeneko 10 urte! Muxu asko familiakoen partez.



Zorionak, **Elene**, igandean 10 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiako denon partez.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€.  
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

## Informazioa, matrikula eta ordutegiak

943 744 040

[www.ils.es](http://www.ils.es)

INDUSTRY  
LANGUAGE  
SERVICES



**ALEMANA**  
**FRANTSESA**  
**INGELES**

- Maila guztiak
- Mintzamina lantzeko klaseak
- 2-3 ordu astean (goizez edo arratsaldez)
- Titulu ofizialetarako prestakuntza:  
FCE, CAE, Proficiency, DELF, DALF, Certificat Deutsch etab.

INDUSTRY  
LANGUAGE  
SERVICES



FABRIKAZIOAREN ZENTRO AurreratuA  
CENTRO AVANZADO DE FABRICACIÓN  
ADVANCED CENTRE IN MANUFACTURING

## 26 BARIKUA

**9:00** Hil bukaerako feria: Covid-19a dela-eta, baseritarren postuak bakarrik jarriko dituzte. Gazta Azoka ere egingo dute. Kalebarren plazan.

**9:00-11:00** Mendaroko aire libreko margo lehiaketarako lanen zigilatzea. Goñati frontoian. Lanak 13:00etatik 14:00etara bitartean aurkeztu beharko dira.

## 27 DOMEKA

**12:30** Kontzertua: Udal Musika Banda. Kalegoen plazan.

Egitaraua: 'Euskal Herriko jaiak'

*San Juanen zortziko* (Eibar)

*San Martinen martxa* (Bergara)

*Diana eta Jolo* (Irun)

*Diana eta riau-riau* (Iruña)

*El centenario* (Errenteria)

*Celedón* (Gasteiz)

*Mari Jaia* (Bilbo)

*Debako martxa* (Deba)

*Aufa eta viva el anís* (Elgoibar)

## 28 ASTELEHENA

**18:00** Emakumeentzako jabeakuntza tailerra: 'Geure gorputzak bizi'. Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta. Loredi Salegik emango du hitzaldia, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**19:00** Epeletan literatura tailerra: 'Izurri berria'. Udal Liburutegian.

## 1 EGUENA

**15:30 / 18:00** Gurasoentzako formazio saioak: 'Seme-alaben adimen emozionala'. HH eta LHko umeen gurasoentzako saioa izango da, eta Sasoiak elkartearen xaboiak emango ditu. Lehenengoa euskaraz eta bigarrena gaztelaniaz. Aita Agirre Kulturguneko areto nagusian. Haurrentzako zaintza txokoa egongo da.

## Iñaki Agirre zinemaldia (Herriko Antzokian)



'El huevo del dinosaurio'

24 eguna 21:30

25 barikua 21:30

'Dónde estás Bernadette'

26 zapatua: 19:00 / 22:15

(VOS)

27 domeka: 19:00

28 astelehena: 21:30

### Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

#### GUARDIAK

**Egunez: 09:00-22:00**

**Iluntzean: 20:00-22:00**

**Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)**

25 BARIKUA	26 ZAPATUA	27 DOMEKA	28 ASTELEHENA
Egunez *Fernandez	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola
29 MARTITZENA	30 EGUAZTENA	1 EGUENA	2 BARIKUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego

\* Fernandez:  
Herriko Enparantza, 4  
Garagartza  
(Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1  
(Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9  
(Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gabez: 22:00-09:00**

Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar) - 943 206 984

### AEG FFB53910ZW ONTZI-GARBIGAILUA

499 €



- Energia-mota A+++ ● 14 zerbitzu ● 5 programa
- MasIFLEX 3. erretilua, mota guztietako mahai-tresnetarako
- Garbiketa indartsua eta zehatza ● 4 temperatura
- Garbiketa ordua programa daiteke, 01:00etatik 24:00etara

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako Produktuak / Regioztuak / Zuzeneko arte





## *Angel Maria Aguirregomezcorta Oregui*

2020ko irailaren 19an hil zen, 74 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Angel Maria Aguirregomezcorta Oregui*

2020ko irailaren 19an hil zen, 74 urte zituela.

***Gure oroimenean bizi zaren artean,  
betiko izango zara gure bihotzetan.***

Zazpi kuadrilla



Eskertzak eta urteurrenak  
**943 743 704 / 943 744 112**  
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)



I. URTEURRENA

## *Koldo Lizarralde Elberdin*


2019ko irailaren 23an hil zen, 69 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,  
domekan, irailaren 27an, 11:30ean,  
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Ez zaude hemen,  
eta hala ere, gurekin zaude.***

Etxekoak







# ELGOIBAR STOCK KALE AZOKA



Urriak 2-3

10:00-13:00 eta 17:00-20:00



Postuak establezimendu atarietan egongo dira.



Parte hartzeko eta informazio gehiago eskuratzeko deitu 943 747 301 zenbakira.